# GIPUZKOAKO ALDAKETA KLIMATIKOAREN FUNDAZIOA

## URTEKO KONTU LABURTUEN AUDITORETZA-TXOSTENA

## 2022 EKITALDIA

Auditoria y Gestión Empresarial, S.L. - Sociedad inscrita en el Registro Mercantil de Guipuzcoa con fecha 30-3-93, Tomo 1336 del Libro de Sociedades, Hoja SS-6642, Folio 90, Inscripción 1ª
C.I.F. B-20443842 - Inscrita en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas (R.O.A.C.) con el número S0979

# AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EMANDAKO URTEKO KONTU LABURTUEN IKUSKARITZA TXOSTENA

**Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren** fundazioko patronatuari:

## *Iritzia*

**Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioaren** urteko kontuak, atxikita doazenak, ikuskatu ditugu, hau da, sozietate horrek 2022ko abenduaren 31ko datan duen balantzea, irabazi eta galeren kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion memoria.

Gure iritziz, erantsitako urteko kontuek Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren *Fundazioak* 2022ko abenduaren 31n duen ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela adierazten dute, haren garrantzizko alderdi guztietan, eta, horrekin batera, urte horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitzak eta eskudiru-fluxuak adierazten dituzte, finantza-informazioaren alorrean betetzekoa den arau-esparruak agintzen duen moduan (memoriako 2. oharrean identifikatuta daudenak), eta, berariaz, hark adierazten dituen kontularitzako printzipioak eta irizpideak aintzat hartuta.

## *Iritzia emateko oinarria*

Auditoretza egiteko, Espainian indarrean dagoen eta kontu-ikuskaritzak arautzen dituen arautegian oinarritu gara. Arau horien arabera ditugun erantzukizunak ondoren deskribatuko ditugu, gure txosteneko Urteko kontuen ikuskaritza-txostenean auditoreak duen erantzukizuna atalean.

Fundaziotik independenteak gara, Espainiako urteko kontu laburtuen auditoretzan erabili beharreko etikaeskakizunen arabera (independentzia eskakizuna ere barnean sartuta), kontu-ikuskaritzak arautzen dituen araudian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu kontu-auditoretzaz beste zerbitzurik eskaini eta ez da beste egoera edo gorabeherarik gertatu, aipaturiko araudiaren arabera eduki behar denezinbesteko independentzia zalantzan jarri duenik.

Gure iritzian, auditoretzarekin lortu dugun ebidentziak nahikoa oinarri egokia ematen du, gure auditoretza-iritzia emateko.

## *Nabarmen paragrafoa*

Atxikitutako memorian 7. Notaren arreta eskatzen dugu, Europako Batzordeko Enpresa Txiki eta Ertainetarako Europako Agentzia Exekutiboak entitateari emandako 270.850 eurotako dirulaguntzarekin erlazionatua. Entitatearengandiko zenbateko honen azken kobrantza, partzuergoa osatzen duten entitate guztiek dirulaguntzaren xedea den Urban Klima 2050 proiektuaren aurreikusitako gastuen justifikazioaren betetzearen baitan dago. Gure iritzia ez da aldatu gai honen ondorioz.



C/ Garibay, 21 -1º • 20004 SAN SEBASTIAN • Tfno.: 943 433 000 • Fax: 943 441 144 • audyge@audyge.com

Kontu-ikuskapeneko gure iritzian eraginik ez badu ere, azpimarratu nahi dugu Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzek finantzatzen dutela funtsean Fundazioaren jarduera. Horregatik, ezinbestekoa da etorkizunean laguntza horiek jasotzea jarduerak jarraituko badu. Gure iritzia ez da aldatu gai honen ondorioz.

## Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak

Zera dira auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak: gure iritzi profesionalaren arabera, epealdi horretako urteko kontu laburtuen auditoretzan akats materiala eragiteko arriskurik esanguratsuenak. Arrisku horiek osotasunean aztertu dira gure kontu laburtuen auditoretzan eta osotasunean eman dugu, halaber, horiei buruzko iritzia. Hala, ez dugu arrisku horietako bakoitzari buruzko iritzi bereizirik adierazi.

Egindako ikuskaritzan kontuan hartu beharreko arrisku esanguratsurik ez dagoela egiaztatu dugu gure txostenean.

## Urteko kontu laburtuen inguruan Patronatuko kideek duten erantzukizuna

Honekin batera doazen urteko kontuak formulatzea Patronatuko kideen ardura da, eta Fundazioaren ondarea, finantza-egoera eta emaitzak islatu behar dituzte, zorroztasunez, Espainian erakundeari aplikatzekoa zaion finantza-informaziorako arauei eta urteko kontuak iruzurren edo hutsegiteen ondoriozko akats materialik gabe prestatzeko beharrezkotzat jotzen duten barne-kontrolari jarraikiz.

Urteko kontuak prestatzean, Patronatuko kideen ardura da Fundazioak jarduneko entitatea izaten jarraitzeko gaitasuna baloratzea. Dagokionean, jarduneko entitateari lotutako gaiak azaldu eta jarduneko entitatearen kontabilitate-printzipioa erabili behar dute, salbu eta Patronatuko kideek entitatea likidatzeko eta eragiketak amaitzeko asmoa badute, edota beste aukera errealistarik ez badago.

## Auditorearen erantzukizuna urteko kontu laburtuen auditoretzaren harira

Gure helburuak: urte kontuek, osotasunean, hutsen baten edo iruzurren baten ondoriozko akats materialik ez dutelako arrazoizko segurtasuna lortzea, eta gure iritzia jasotzen duen ikuskaritza txostena ematea.

Arrazoizko segurtasuna segurtasun-maila altua da baina, halere, ez du bermatzen Espainian ikuskaritza-jarduna arautzeko araudiarekin bat egindako auditoretzak beti antzemango duenik akats materialen bat, baldin eta halakorik badago. Akatsak hutsegiteen edo iruzurren ondoriozkoak izan daitezke eta akats materialtzat jotzen dira baldin eta, banaka edo batuta, eta urteko kontuetan oinarrituta, erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eragin dezaketen arrazoizko ustea badago.

Auditoria y Gestión Empresarial, S.L. - Sociedad inscrita en el Registro Mercantil de Guipuzcoa con fecha 30-3-93, Tomo 1336 del Libro de Sociedades, Hoja SS-6642, Folio 90, Inscripción 1ª
C.I.F. B-20443842 - Inscrita en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas (R.O.A.C.) con el número S0979



C/ Garibay, 21 -1º • 20004 SAN SEBASTIAN • Tfno.: 943 433 000 • Fax: 943 441 144 • audyge@audyge.com

Espainian kontu-ikuskaritzak arautzen dituen araudiarekin bat, gure iritzi profesionala ezartzen eta eszeptizismo profesionaleko jarrera mantentzen dugu ikuskaritza osoan. Eta, horrekin batera:

- Urteko kontuetan hutsegite baten edo iruzurren baten ondoriozko akats materialik egoteko arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu, auditoretzako prozedurak ezartzen ditugu arriskuhoriei erantzuteko, eta gure iritzia emateko oinarria eskuratzeko auditoretza-ebidentziak lortzen ditugu. Iruzurraren ondoriozko akats materialik ez antzemateko arriskua handiagoa da hutsegitearen ondoriozko akats materialik ez aurkitzeko arriskua baino; izan ere, iruzurrak berekin erka dezake kolusioa, faltsutzea, nahitako ez-egiteak, nahitako adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea.

- Erakundearen barne-kontrol esanguratsuaren inguruko ezagutza eskuratzen dugu, baina ez barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko, baizik eta inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatu ahal izateko.

- Erabiltzen dituzten kontabilitate-politikak egokiak eta kontabilitate-balioespenak arrazoizkoak diren ebaluatzen dugu, Patronatuko kideek emandako informazioa aztertuta.

- Patronatuko kideek jarduneko entitatearen kontabilitate-printzipioa zuzen erabiltzen ote duten ondorioztatzen dugu eta, eskuratutako auditoretza-ebidentzia oinarri hartuta, Fundazioak jarduneko entitatea gisa jarraitzeko gaitasunari buruzko zalantza esanguratsuak sor ditzaketen gertaerei edo baldintzei lotutako zalantza materialik ote dagoen ebazten dugu. Zalantza materiala dagoela ondorioztatuz gero, gure ikuskaritza-txostenean urteko kontuetan azalerazi den informazioari buruz ohartarazteko betebeharra dugu. Eta, azalerazi den informazio hori okerra bada, iritzi aldatua adierazi behar dugu. Gure ondorioak ikuskaritza-txostenaren egunera arte lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritzen dira. Dena dela, gerta daiteke ikuskaritza-txostena egin eta gerorako gertaerek edo baldintzek eragitea Fundazioa jarduneko entitatea izateari utzi behar izatea.

- Urteko kontuen aurkezpen globala, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta aztertu egiten dugu urteko kontuek transakzio eta azpiko gertaera guztiak egoki jasotzen dituzten, Sozietatearen benetako irudia adierazteko moduan.

Patronatuko kideekin harremanetan egoten gara, besteak beste, planifikatutako auditoretza noiz egin eta zer irismen izango duen jakiteko, auditoretzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeko, bai eta auditoretzan aurkitutako barne kontrolaren edozein gabezia esanguratsuren harira ere.

Patronatuko kideei jakinarazi dizkiegun arrisku esanguratsuen artean, aldi honetako urteko kontuen ikuskaritzan esanguratsuenak izan direnak zehazten ditugu, horiexek baitira garrantzitsuentzat jo ditugunak.

Auditoría y Gestión Empresarial, S.L. - Sociedad inscrita en el Registro Mercantil de Guipuzcoa con fecha 30-3-93, Tomo 1336 del Libro de Sociedades, Hoja SS-6642, Folio 90, Inscripción 1ª
C.I.F. B-20443842 - Inscrita en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas (R.O.A.C.) con el número S0979



C/ Garibay, 21 -1º • 20004 SAN SEBASTIAN • Tfno.: 943 433 000 • Fax: 943 441 144 • audyge@audyge.com

AUDYGE
AUDITORIA Y GESTIÓN EMPRESARIAL

Arrisku horiek gure ikuskaritza-txostenean deskribatzen ditugu, salbu eta legezko edo arauzko xedapenek gai horiek plazaratzea debekatzen badute.

Auditoría y Gestión Empresarial, S.L.
Kontu Ikuskatzaileen Erregistro Ofizialean erregistratua, S0979 zenbakiarekin

Miguel Ángel Iglesias Altolaguirre
Kontu Ikuskatzaileen Erregistro Ofizialean erregistratua, 10.711 zenbakiarekin

Donostia / San Sebastián, 2023ko maiatzaren 18a

INSTITUTO DE AUDITORES-CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
AUDITORÍA Y GESTIÓN EMPRESARIAL, S.L.
R.O.A.C. n.º S0979
SAN SEBASTIAN

AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA

AUDITORIA Y GESTION EMPRESARIAL S.L.

2023 Núm. 03/23/03333

Informe de auditoría de cuentas sujeto a la normativa de auditoría de cuentas española o internacional

15947933D MIGUEL ANGEL IGLESIAS (R: B20443842)

Firmado digitalmente por 15947933D MIGUEL ANGEL IGLESIAS (R: B20443842)
Fecha: 2023.06.29 13:24:07 +02'00'

Auditoría y Gestión Empresarial, S.L. - Sociedad inscrita en el Registro Mercantil de Guipuzcoa con fecha 30-3-93, Tomo 1336 del Libro de Sociedades, Hoja SS-6642, Folio 90, Inscripción 1ª
C.I.F. B-20443842 - Inscrita en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas (R.O.A.C.) con el número S0979



C/ Garibay, 21 -1º • 20004 SAN SEBASTIAN • Tfno.: 943 433 000 • Fax: 943 441 144 • audyge@audyge.com

## EGOERA-BALANTZE LABURTUA

## EMAITZEN KONTU LABURTUA

Naturklima

# GIPUZKOAKO ALDAKETA KLIMATIKOAREN FUNDAZIOA

## 2022KO ETA 2021EKO EKITALDI-ITXIERAKO BALANTZE LABURTUA

(Eurotan)

| AKTIBOA | MEMORIAREN OHARRAK | 31/12/2022 | 31/12/2021 |
|---|---|---|---|
| A) AKTIBO EZ ARRUNTA | | 101.303,60 | 114.001,96 |
| I. Ibilgetu ukiezina | 5 | 22.910,55 | 29.421,64 |
| III. Ibilgetu materiala | 5 | 54.616,25 | 60.803,52 |
| VI. Epe luzeko finantza Inbertsioak | 6 | 23.776,80 | 23.776,80 |
| B) AKTIBO ARRUNTA | | 554.167,30 | 362.646,88 |
| IV. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak | 6,9 | 351.710,33 | 216.680,04 |
| 1. Bezeroak salmentengatik eta prestazioengatik | | 0,00 | 0,00 |
| 3. Beste zordun batzuk | | 351.710,33 | 216.680,04 |
| V. Epe laburreko periodifikazioak | | 71,67 | |
| VIII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak | | 202.385,30 | 145.966,84 |
| AKTIBOA GUZTIRA (A+B) | | 655.470,90 | 476.648,84 |

| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA | MEMORIAREN OHARRAK | 31/12/2022 | 31/12/2021 |
|---|---|---|---|
| A) ONDARE GARBIA | | 269.575,08 | 123.767,18 |
| A-1) Fondo propioak | 8 | 231.398,80 | 14.921,74 |
| I. Fundazioaren zuzkidura | | 30.000,00 | 30.000,00 |
| 1. Fundazioaren zuzkidura | | 30.000,00 | 30.000,00 |
| III. Aurreko ekitaldietako soberakinak | | -15.078,26 | -15.560,15 |
| IV. Ekitaldiko soberakina | | 216.477,06 | 481,89 |
| A-3) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak | 11 | 38.176,28 | 108.845,44 |
| B) PASIBO EZ ARRUNTA | | 184.323,32 | 234.950,38 |
| II. Epe luzeko zorrak | 7 | 184.323,32 | 234.950,38 |
| 3. Epe luzeko bestelako zorrak | | 184.323,32 | 234.950,38 |
| C) PASIBO ARRUNTA | | 201.572,40 | 117.931,28 |
| III. Epe laburreko zorrak | 7 | 1.106,05 | 13.612,50 |
| 3. Epe laburreko bestelako zorrak | | 1.106,05 | 13.612,50 |
| VI. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak | 7,9 | 200.466,35 | 104.318,78 |
| 2. Hainbat hartzekodun | | 200.466,35 | 104.318,78 |
| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA ( A+B+C ) | | 655.470,80 | 476.648,84 |

Atxikitako laburpen-memoriaren 1.oharretik 17.era bitartekoak 2022ko eta 2021eko abenduaren 31ko egoera-balantzearen parte dira



Lehendakaria:
Jose Ignacio Asensio Bazterra Jauna
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako
Foru-diputatua

# GIPUZKOAKO ALDAKETA KLIMATIKOAREN FUNDAZIOA

## 2022ko eta 2021eko ABENDUAREN 31n AMAITUTAKO EKITALDIKO GALDU-IRABAZIEN KONTUA

(Eurotan)

| | | MEMORIAREN OHARRAK | (Zor) / Hartzeko 31/12/2022 | (Zor) / Hartzeko 31/12/2021 |
|---|---|---|---|---|
| A) | **Ekitaldiko soberakina** | | | |
| | **1. Berezko jardueragatik lortutako diru-sarrerak** | ***10*** | *1.212.580,69* | *706.639,00* |
| | d) Ekitaldiko sobreakinari egotzitako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak | | *1.212.580,69* | *706.639,00* |
| | ***2. Salmentak eta merkataritza-jardueraren diru-sarrerak*** | ***10*** | | *250,00* |
| | **3. Laguntza eta besteengatiko gastuak** | ***10*** | *-45.000,00* | *-45.000,00* |
| | a) Moneta-laguntzak | | *-45.000,00* | *-45.000,00* |
| | ***8. Pertsonal-gastuak*** | ***10*** | *-350.789,66* | *-332.157,21* |
| | ***9. Jarduerako bestelako gastuak*** | ***10*** | *-659.757,78* | *-318.591,60* |
| | ***10. Ibilgetuaren amortizazioa*** | ***5*** | *-36.220,35* | *-28.211,23* |
| | ***11. Ekitaldiko soberakinera eramandako kapitaleko diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak*** | ***11*** | *95.669,16* | *17.612,83* |
| | ***12. Beste emaitza batzuk*** | | -5,00 | |
| A.1) | **JARDUERAREN SOBERAKINA (1+2+3+8+9+10+11)** | | 216.477,06 | 541,79 |
| | ***14. Finantzako diru-sarrerak*** | | *0,00* | 0,00 |
| | ***15. Finantzako gastuak*** | | | *-59,90* |
| A.2) | **ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKINA (14+15)** | | 0,00 | -59,90 |
| A.3) | **ZERGAK APLIKATU AURREKO EMAITZA (A.1+A.2)** | | 216.477,06 | 481,89 |
| | ***19. Mozkinen gaineko zerga*** | | | |
| A.4) | **Ekitaldiko soberakinean onartutako ondare garbiaren aldaketa (A.3+19)** | | 216.477,06 | 481,89 |
| B) | **Ondare garbiari zuzenean atxikitutako diru-sarrera eta gastuak** | | 25.000,00 | 43.150,00 |
| | ***1. Jasotako diru-laguntzak*** | ***11*** | *25.000,00* | *43.150,00* |
| B.1) | **gastuengatik (1)** | | 25.000,00 | 43.150,00 |
| C) | **Ekitaldiko soberakinari birsailkapena** | | | |
| | ***1. Jasotako diru-laguntzak*** | ***11*** | *-95.669,16* | *-17.612,83* |
| C.1) | **Ekitaldiko soberakinari birsailkapenengatiko aldaketa ondare garbian (1)** | | -95.669,16 | -17.612,83 |
| D) | **Ondare garbiari zuzenean atxikitutako diru-sarrera eta gastuengatiko aldaketak ondare garbian (B.1+C** | | -70.669,16 | 25.537,17 |
| E) | **Irizpide aldaketengatiko doikuntzak** | | 0,00 | 0,00 |
| F) | **Akatzengatiko doikuntzak** | | 0,00 | 0,00 |
| G) | **FUNDAZIOAREN ZUZKIDURAN ALDAKETAK** | | 0,00 | 0,00 |
| H) | **Bestelako aldaketak** | | 0,00 | 0,00 |
| I) | **EMAITZA GUZTIRA, ONDARE GARBIAREN ALDAKETA EKITALDIAN (A.4+D+E+F+G+H)** | | 145.807,90 | 26.019,06 |

Atxikitako laburpen-memoriaren 1.oharretik 17.era bitartekoak 2021eko eta 2022ko abenduaren 31ko Galdu-Irabazien kontua parte dira



Lehendakaria:
Jose Ignacio Asensio Bazterra Jauna
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako
Foru-diputatua

**2022KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIAREN LABURPEN-MEMORIA**

## 1. oharra.- Fundazioaren jarduera

2018ko uztailaren 17an, FUNDACIÓN CAMBIO CLIMÁTICO DE GIPUZKOA izendapenarekin, Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Gorenak Fundazio bat eratu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearekin bat etorriz, denbora mugagabez. Horren identifikazio fiskalaren zenbakia G75203687 da.

Fundazio hau, hain zuzen ere, Foru Aldundiari Gipuzkoako Klima Aldaketaren aurkako Borrokaren Estrategiaren garapenean laguntzeko berariazko eginkizunarekin eratu da, Gipuzkoako gobernantza Klimatiko eta Energetikoan ezarritako hitzetan. Hain zuzen ere, bere eginkizunak ondoko hauek izango dira:

a) Gipuzkoako foru Aldundiari laguntzea Gipuzkoan Klima Aldaketaren analisian, behaketan eta inpaktuaren kontrolean.

b) Diagnostiko doitu bat erdiestearen alde lan egitea eta eragileen esparru zabal bat ekintzara bultzatzea, Klima-aldaketa gutxitzearren eta horretara egokitzearren.

c) Gipuzkoako Klima Aldaketaren aurkako Borrokaren Estrategiak egiten dituen aurrerapenak ebaluatzeko eta jarraipena egiteko prozesua bermatzea.

Hori lortzeko, Fundazioak, besteak beste, ondorengo jarduerak egin ahal izango ditu:

a) Euskal autonomia Erkidegoan nahiz nazioartean garatzen ari diren ekimen guztiak ezagutzea, hautatzea eta horiekin bat egitea, Klima Aldaketaren aurkako Borrokaren Estrategia garatzera bideratzeko helburuz, Gipuzkoako ingurumenak, pertsonek eta enpresek iraunkortasun bat izan dezaten, eta lurraldean gizarte eta ekologia arloan trantsizio atzeraezin baterako sustatzaile gisa balio izan dezan.

b) Klima-aldaketak ingurune fisikoan, natura-ingurunean, ingurumen-kalitatean, gizarte eta ekonomia arloko jarduera eta erabileren garapenean eta herritarren pertzepzioan dituen inpaktuak behatu, aztertu, sentsorizatu eta kontrolatzea.

c) Eragileen talde bat sortzen, koordinatzen eta dinamizatzen laguntzea, aipatutako Estrategian eta bere bederatzi helburuetan zehaztutako klima-aldaketaren aurka lan egin dezaten. Unibertsitatearen, ikerlarien, enpresen eta administrazioen arteko topagune gisa kokatuko du klima-aldaketaren aurkako borrokaren eremuan, eta ahalbidetuko ditu, eta Circular Recycling HUB bidez ekonomia zirkular baterako trantsizioa eta eredu energetiko berri baterako trantsizioa bultzatuko du, Renewable Energy HUB bidez (Smart Grios, Smart Cities).

d) Arlo honetan informazio eta hezkuntzarako zentro gisa eratu eta jokatuko du, herritarrei informazioa eta ezagutzak modu grafikoan eta ulergarrian eskainiz eta jakinaraziz, Ingurumenaren Monitorizazio Sistema baten bitartez.



Lehendakaria:
Jose Ignacio Asensio Bazterra jauna
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Foru-diputatua

e) Informazioa eta dokumentazioa bildu eta Foru Aldundiari informazioa eta aholkuak emateko gomendio eta irizpideak prestatuko ditu, erabakiak hartzea hobetzeko eta aipatutako Estrategiaren berrikuspena, jarraipena eta kontrola egiteko.

f) Foru Aldundiak alor honekin loturik eskatzen dizkion guztiak.

Fundazioak Gipuzkoako Foru Aldundiaren baliabide propio pertsonifikatuaren izaera du, eta enkarguak eman ahal izango dizkio, kontratuen kontsiderazio juridikorik eduki gabe, kasu bakoitzean dagozkion organoek erabakitzen dituzten hitz eta baldintzetan, eta Herri Administrazioei aplikagarri zaien erregimen juridiko eta administratiboarekin bat etorriz.

Fundazioak ezingo du Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen dituen lehiaketa publikoetan parte hartu, nahiz eta, beste inolako lehiatzailerik ez dagoen kasuetan, horien xede den prestazioa gauzatu dezala eskatu ahal izango zaion.

2018ko urriaren 25ean Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publikoko eta autogobernuko Sailburuak erabaki zuen "GIPUZKOAKO ALDAKETA KLIMATIKOAREN FUNDAZIOA/FUNDACION CAMBIO CLIMATICO DE GUIPUZCOA" Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea f-433 erregistro-zenbakiaz.

Fundazioak ez ditu ikuskatzeko betebeharraren betekizunak betetzen, baldintzetako bi betetzen ez dituelako elkarren segidako bi ekitalditan, Euskal autonomia erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 19/2016 Legearen 33. Artikuluan ezarritakoaren arabera, nahiz eta kontuak kanpoko ikuskaritzaren mende jartzen dituen.

Ekitaldi ekonomikoa 2022/01/01ean hasi eta 2022/12/31ean amaitu da.

## 2. oharra.-Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

### 2.1. *Irudi leiala*

Honekin batera doazen 2022. Ekitaldiko Urteko Kontuak Fundazioak 2022ko abenduaren 31nzituen kontabilitate-erregistroak abiapuntutzat hartura prestatu dira , eta bertan, irabazi asmorik gabeko entitateak Kontabilitate Plan Orokorrari egokitzeko arauak onartzen dituen 1/2021 Errege Dekretuan jasotako kontabilitate-printzipioak eta balioespen-irizpideak aplikatu dira, halaber, 2013ko martxoaren 26ko ICACen ebazpena, Entitateen Kontabilitate Plana onesten duena, baita kontabilitate alorrean indarrean dauden gainerako lege-xedapenak ere, eta horiek Fundazioaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi leiala erakusten duten. Urteko Kontu hauek, Egoera Balantzea eta Emaitzen Kontua osatzen dituzten agirietan jasotako zenbakiak euroetan adieraziak daude beren dezimalekin, eta Memoriakoak euroetan dezimalekin.

Irudi leial hori erakusteko orduan ez da salbuespenezko arraziorik egon kontabilitate alorreko lego-xedapenak es aplikatzeko.

Honekin batera doazen Urteko Kontuak Patronatuaren Batzordeak onetsi beharko ditu, eta inolako aldaketarik gabe onetsiak izatea espero da.

### 2.2. *Aplikatu diren nahitaezko kontabilitate-printzipioak*

Nahitaez aplikatu beharrekoak diren eta honekin batera doazen finantza-egoeretan eragin nabarmena duten kontabilitate-printzipio eta arau guztiak hastu dira kontuan. Es dago inolako kontabilitate-printzipiorik, nahitaezkoa izanik aplikatu es denik.

### 2.3. *Ziurgabetasunaren balioespen eta estimazioak dituen alderdi kritikoak*

Fundazioak funtzionamenduan dauden erakundeekin lotutako printzipioan oinarrituta prestatu ditu finantza-egoerak, hurrengo ekitaldiko aktibo edo pasiboen balioan aldaketak eragin ditzakeen arriskurik gabe.

Atxikitako Urteko Kontuetan Patronatuko kideek egindako zenbatespenak erabili dira maiz, bertan erregistratutako aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromisoak zenbatzeko. Oro har, zenbatespen horiek aktibo materialen bizitza baliagarriari egiten diote erreferentzia.

Nahiz eta zenbatespen horiek Urteko Kontuak formulatzerakoan eskuragarri zegoen informazio onenaren arabera egin ziren, baliteke etorkizuneko ekitaldietan aldaketak egin behar izatea (gora edo behera), eta hori gerora egingo litzateke, etorkizuneko irabazi- eta galera-kontuetako zenbatespen-aldaketak aintzat hartuz.



Lehendakaria:
Jose Ignacio Asensio Bazterra jauna
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Foru-diputatua

### *2.4. Informazioaren alderaketa*

Kontabilitate Planean ezarritako betebeharraren ondorioetarako, eta uniformetasun-printzipioa eta konparagarritasun-baldintza aplikatzetik eratorritako ondorioetarako, 2022ko ekitaldiari dagozkion Urteko Kontuak aurreko ekitaldiaren kontuekin batera aurkezten dira.

### *2.5. Hainbat kontu-siletan jasotako elementuak*

Ez da aurkezten balantzearen bi kontu-sailetan edo gehiagotan erregistratutako ondare-elementurik.

### *2.6. Kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketak*

Ekitaldian ez da aldaketarik izan kontabilitate-irizpideetan

### *2.7. Akatsen zuzenketa*

2022 ekitaldiari dagozkion Urteko Kontuetan ez da jaso ekitaldian antzemandako akatsen ondorioz egindako aldaketarik.

## 3. oharra.- Ekitaldiko Soberakina aplikatzea

Honako hau da 2022ko ekitaldiari dagokion soberakina banatzeko proposamena:

| | |
|---|---|
| **Banaketa-oinarria** | |
| Ekitaldiko soberakina | *216.477,06* |
| **Guztira** | ***216.477,06*** |
| **Banaketa** | |
| A Aurreko ekitaldietako soberakinak | *216.477,06* |
| **Guztira** | ***216.477,06*** |

2021 ekitaldiari dagozkion urteko kontuak Fundazioaren Patronatuko Batzarrak onartu zituen 2022ko ekainaren 23ko bilkuran:

| | |
|---|---|
| **Banaketa-oinarria** | |
| Ekitaldiko soberakina | *481,89* |
| **Guztira** | ***481,89*** |
| **Banaketa** | |
| A Aurreko ekitaldietako soberakinak | *481,89* |
| **Guztira** | ***481,89*** |



Lehendakaria:
Jose Ignacio Asensio Bazterra jauna
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Foru-diputatua

## 4. oharra.- Erregistrorako eta balioespenerako arauak

Ekitaldirako urteko kontuak prestatzeko orduan Fundazioak erabilitako balioespen arau nagusiak, indarrean dagoen legeriarekin bat etorriz, ondorengo hauek izan dira:

### 4.1. *Ibilgetu materiala eta ukiezina*

Ibilgetu materiala bere eskurapen-kostuaren arabera balioetsia dago, Balio Erantsiaren gainerako. Zerga barne.
Konponketa eta mantentzen-lanen gastuak horiek gauzatzen diren ekitaldiko emaitzen kontura erregistratzen dira
Amortizazioa linealki kalkulatzen da kostu-balioen gainean, ehuneko nahikoak erabiliz eta indarrean dagoen legeriarekin bat etorriz, aktiboak beren bizitza erabilgarrian barrena amortizatu daitezen.

Aplikatu beharreko ehunekoak hauek dira:

| Elementuak | Portzentaia |
|---|---|
| Aplikazio informatikoak | 25% |
| Beste ibilgetu ukiezina | 20% |
| Bestelako instalazio materialak | 14% |
| Informazioaren proozesaketarako ekipoak | 25% |
| Altzariak | 14% |
| Beste ibilgetu material bat | 10% |

### 4.2. *Finantza-tresnak*

- *Aktibo finantzarioak*

Sailkapena

Sozietatearen aktibo finantzarioak, euren balorazioari dagokionez, ondorengo kategorietan sailkatzen dira, euren kontratu fluxuen zein sozietatearen aktibo finantzario horri aplikatutako negozio-ereduaren arabera:

**a.** Galdu-Irabazien bidez arrazoizko balioan baloratutako aktibo finantzarioak: kategoria honetan sartzen dira sozietateak mantendutako aktibo finantzario guztiak, jarraian adierazitako bestelako jardueretarako batean sailkatu behar direnak izan ezik.

**b.** Kostu amortizatuko aktibo finantzarioak: Kategoria honetan sartzen dira kontratuak gauzatzetik eratortzen dira diru-fluxuak irudiko ustetan aktibo finantzarioak, baldin eta horien kontratu-baldintzek, zehaztutako datetan, diru-fluxuak eragiten badituzte, printzipalaren kobrantzak eta ordaintzeko dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak ez direnak. Era berean, kategoria honetan sartzen dira merkataritza-eragiketengatiko kredituak.

c. Ondare garbian aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioak: kategoria honetan sartzen dira ondare garbiaren bidez arrazoizko balioan neurtzeko aukera ezeztaezina erabili duen sozietateak ondare-tresnetan egindako inbertsioak.

d. Kostuko aktibo finantzarioak: balorazio-kategoria honetan sartzen dira taldeko enpresen, talde anitzekoen eta elkartuen ondarean egin inbertsioak.

Hasierako balorazioa

Aktibo finantzario baten hasierako aintzatespena arrazoizko balioaren arabera egiten da. Aktibo finantzario bat eskuratzeari edo jaulkitzeari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuak haren balioaren zati gisa sartuko dira hasierako kontabilizazioan, emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioen kasuan izan ezik. Aurrekoa gorabehera, epe laburrean merkataritzakoak diren eta berariaz interesik sortzen ez duten eta eguneratze-efektua esanguratsua ez duten kontuak beren balio nominalean erregistratuko dira.

Ondorengo balorazioa

Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioak, hasierako kontabilizazioa egin ondoren, arrazoizko balioan balioesten dira, galdu-irabazien kontuan aldaketak eginda.

Kostu amortizatuko aktibo finantzarioak, aurreko paragrafoan aipatutako balio nominalean erregistratutako kobratu beharreko kontu komertzialak izan ezik, kostu amortizatuaren arabera balioetsiko dira. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta.

Ondare garbian aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioak arrazoizko balioan baloratzen ditu sozietateak. Arrazoizko balioan gertatzen diren aldaketak zuzenean erregistratzen dira ondare garbian, aktibo finantzarioak balantzean baja ematen duen edo narriatzen den arte; une horretan, horrela kontabilizatutako zenbatekoa galdu-irabazien kontura egozten da.

Taldeko enpresetan, talde anitzetan eta elkartuetan egindako inbertsioak kostuaren arabera baloratuko dira, eta, hala badagokio, narriaduragatik egindako balio-zuzenketen zenbateko metatuan murriztuko dira. Aktibo horien bajak talde homogeneoen araberako batez besteko kostu haztatuaren metodoa aplikatuz baloratzen dira, hau da, eskubide berdinak dituzten balioen arabera.

Baliogalera

Baliogalera-ebidentziak daudenean, eta, edonola ere, urtean behin gutxienez, sozietateak baliogalera-test bat egiten du aktibo finantzario guztientzat, galdu-irabazien bidez arrazoizko balioan baloratzen direnentzat izan ezik.

Kostu amortizatuko aktibo finantzarioen balio-galera gertatzen da argi dagoenean sozietatea ez dela gai izango zenbateko guztiak jatorrizko terminoen arabera berreskuratzeko.

Balio-galeraren zenbatekoa gastu gisa kontabilizatzen da galdu-irabazien kontuan, eta etorkizuneko kutxa-fluxuen kontabilitate-balioaren eta uneko balioaren arteko diferentziaren bidez zehazten da, jatorrizko interes-tasa efektibora deskontatuta. Aktiboaren liburu-zenbatekoa kontu zuzentzaile baten bidez murrizten da.

Ondorengo aldietan aktibo finantzarioaren balioa kostu amortizatuan balioetsi dela agerian geratzen bada, kontabilizatutako balio-galera leheneratu egingo da.

Itzulketa horren muga izango da aktibo finantzarioak balio-galera erregistratu izan ez balitz liburuetan izango zukeen balioa. Itzulketaren erregistroa ekitaldiko galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen da.

Azkenik, kobratu beharreko kontu bat ez da berreskuragarritzat joko honako egoera hauek gertatzen direnean: enpresa desegitea, exekutatzeko adierazi beharreko aktiborik eza edo ebazpen judizial bat.

Taldeko enpresetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako inbertsioen kasuan, balio-galera erregistratzen da, betiere partaidetzaren kontabilitate-balioa haren balio berreskuragarria baino handiagoa bada.

Sozietateak baja ematen die aktibo finantzarioei aktibo finantzarioaren diru-fluxuen gaineko kontratu-eskubideak amaitzen direnean edo aktibo finantzarioa transferitzen denean eta transferentziak kontuetan baja emateko baldintzak betetzen dituenean.

- *Pasibo finantzarioak*

Pasibo finantzarioak, hasieran, egindako transakzio-kostuen arrazoizko balio garbian kontabilizatzen dira. Finantza-tresna deribatuetan izan ezik, Sozietateak hasierako kontabilizazioa egin ondoren erregistratzen ditu bere pasibo finantzarioak, kostu amortizatuan. Finantzaketa gisa jasotako zenbatekoaren (transakzio-kostuen balio garbia) eta errenboltso-balioaren arteko edozein alde zor-tresna finantzarioaren bizitzan zehar izandako galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen da, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz.

Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu korronte batzuk berariazko interesik sortzen ez duten pasibo finantzarioak dira, eta eguneratze-efektua esanguratsua ez bada, balio nominalaren arabera erregistratzen dira.

Pasibotik eratorritako finantza-tresnak arrazoizko balioan baloratzen dira.

Sozietateak pasibo finantzario bati edo horren zati bati baja ematen dio betebeharra iraungi denean; hau da, ordaindu, ezereztu edo iraungi denean.

*4.3. Balio erantsiaren gaineko zerga*

Fundazioa bazkide-izaerako establezimendu pribatu da, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga-araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 37/92 Legera egokitzen duen 102/92 Foru Dekretuko 20. artikuluko bat 12. apartatuan jasotako salbuespenak aplikatzen zaizkio, bere kideei eskaintzan dizkien zerbitzuen prestazioetarako, eta horiek ergi eta garbi helburu filantropikoa eta zibikoa dute. Era berean, entitateak zuzenean eta ondasun-emate osagarriak horri lotuak eta salbuetsiak egongo dira, aipatutako 102/92 Foru Dekretuko 20. artikuluko bat 12. apartatuan ezarritako hitzetan. Halaber, horri lotuak eta ez-salbuetsiak egongo dira barne-zerrendatuak es diren gainerako eragiketa guztiak. Horrenbestez, Fundazioak Balio Erantsiaren gaineko Zerga jasaten du eta es du horren kenkaririk egingo, eta beraz, inbertsio-ondasunen eragiketen xede direnean, eta hala, hainbanaketaren araua aplikatuko da, betiere kenkaria egiteko eskubidea sorrarazten duten zerbitzuen prestazioak eta aipatutako eskubide hori gauzatzea ahalbidetzen es duten beste eragiketa batzuk batera eginez gero ( 9.Oharra)

*4.4. Sozietateen gaineko zerga*

Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga-erregimenari eta mezesnasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauari lotua dago Fundazioa. Fundazioak Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita ditu erakundearen helburuetan laguntzeagatik jasotako errentak, ondore-zuzkidura kontzeptupean egindako ekarpenak edo dohaintzak es barne; bazkideek, kolaboratzaileek edo ongileek ordaindutako kuotak; diru-laguntzak ; eskurapen edo eskualdaketetatik datozen errentak, ondasun edo eskubideen edozein titulurengatik, eta zerga-araudiarekin bat etorriz, erakundeari esleitzen zaizkionak eta aurreko errenta salbuetsi horietakoren batetik datozenak.

Sortutako gainerako errentak 3/2004 Foru Arauaren12. Artikuluarekin bat etorriz ordainduko dute zerga, % 10eko zerga-tasaren arabera.

*4.5. Diru-sarrerak eta gastuak*

Diru-sarrera eta gastuak sortzapen-erizpidearen arabera egosten dira, hau da , horiek ordezkatzen dituzten ondasun eta zerbitzuen korronte erreala sortzen denean, horietatik ondorioztatzen den moneta- edo finantza-korrontea zein unetan sortzen den kontuan izan gabe. Nolanahi ere, zuhurtziaren printzipioari jarraiki, Fundazioak ekitaldiaren itxiera-egunean gauzatutako irabaziak bakarrik kontabilizatzen ditu, eta aldiz, bai aurreikus daitezkeen arriskuak eta bai galerak ere, baita unean unekoak ere, ezagutu bezain laster kontabilizatzen dira.



Lehendakaria:
Jose Ignacio Asensio Bazterra jauna
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Foru-diputatua

*4.6. Diru-laguntza, dohaintza eta legatuak*

Kapitaleko diru-laguntza es-itzulgarriak, hortaz, emandako zenbatekoaren arabera balioesten dira, eta hastapenez ondare garbiari zuzenean egozten zaizkion diru-sarreratzat hartzen dira eta diru-laguntza horien bidez finantzatutako aktiboek epealdi horretan izandako balio-galeraren proportzioan egotziko dira emaitzetan, balio-galerarik izan ezin dezaketen aktiboak izan ezean, eta azken kasu honetan, inbentarioan horien baja edo inorenganatzea gertatzen den ekitaldiko emaitzari egotziko zaizkio.

Diru-laguntza gastu bereziak finantzatzeko ematen direnean, diru-sarreratzat hartuko dira finantzatzen ari diren gastuak sortzen diren ekitaldian.

Erakunde publikoetatik, defizitaren konpentsazio bidez patronoetatik eta beste batzuetatik jasotakoak diru-laguntza, dohaintza eta ustiapen-legatuan artean barneratuko dira ekitaldiko diru-sarrera gisa beren sortzapenaren arabera, eta bereizi egingo dira, batetik, fundazioaren berezko jarduerarekin loturik daudenak, horiak jardueraren diru-sarreratzat barneratuz, eta bestetik , merkataritza-jarduerekin loturik daudenak, beste diru-sarrera gisa barneratuz.

*4.7. Ingurumen-izaera duten ondare-elementuak*

Patronoek berretsi dute Fundazioak es duela ingurumen izaerako erantzukizunik, gasturik, aktiborik , ezta hornidurarik eta kontingentziarik ere, beraren ondarearekin, finantza-egoerarekin eta emaitzekin loturik esanguratsuak izan daitekeenik.

*4.8. Saldoen sailkapena korrontearen eta ez-korrontearen artean*

Erantsitako egoera-balantzean, saldoak ez-korronteetan eta korronteetan sailkatzen dira. Sozietateak ustiapen-ziklo arruntean saltzea, kontsumitzea, ordaintzea edo berraizatzea espero dituen saldoak biltzen dituzte korronteek; sailkapen horrekin bat ez datozen saldoak ez-korrontetzat hartzen dira.



Lehendakaria:
Jose Ignacio Asensio Bazterra jauna
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Foru-diputatua

## 5. oharra.- Ibilgetu material eta ukiezina, eta higiezinetako inbertsioak

2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian ibilgetu materialaren kontuetan izandako mugimendua honako hau izan da:

| | Saldoa 2020/12/31 | Gehitz. | Ateratz. | Intsuld. | Saldoa 2021/12/31 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Kostua** | | | | | |
| Tresneria | 0,00 | 6,95 | | | 6,95 |
| Bestelako instalazioak | 7.353,29 | 3.039,04 | | | 10.392,33 |
| Altzariak | 7.376,71 | 125,56 | | | 7.502,27 |
| Ekipamendu informatikoak | 59.244,11 | 19.166,34 | | | 78.410,45 |
| Bestelako ibilgetu materiala | 5.317,88 | (64,90) | | | 5.252,98 |
| **Kostua guztira** | **79.291,99** | **22.272,99** | **0,00** | **0,00** | **101.564,98** |
| **Amortizazio metatua** | | | | | |
| Tresneria | 0,00 | (0,74) | | | (0,74) |
| Bestelako instalazioak | (1.619,60) | (1.181,88) | | | (2.801,48) |
| Altzariak | (531,77) | (1.112,39) | | | (1.644,16) |
| Ekipamendu informatikoak | (19.529,17) | (15.826,86) | | | (35.356,03) |
| Bestelako ibilgetu materiala | (427,26) | (531,79) | | | (959,05) |
| **Guztira amort. metatua** | **(22.107,80)** | **(18.653,66)** | **0,00** | **0,00** | **(40.761,46)** |
| **Garbia** | **57.184,19** | **3.619,33** | **0,00** | **0,00** | **60.803,52** |

2022ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian ibilgetu materialaren kontuetan izandako mugimendua honako hau izan da:

| | Saldoa 2021/12/31 | Gehitz. | Ateratz. | Intsuld. | Saldoa 2022/12/31 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Kostua** | | | | | |
| Tresneria | 6,95 | | | | 6,95 |
| Bestelako instalazioak | 10.392,33 | 2.904,00 | | | 13.296,33 |
| Altzariak | 7.502,27 | | | | 7.502,27 |
| Ekipamendu informatikoak | 78.410,45 | 14.332,08 | | | 92.742,53 |
| Bestelako ibilgetu materiala | 5.252,98 | 598,91 | | | 5.851,89 |
| **Kostua guztira** | **101.564,98** | **17.834,99** | **0,00** | **0,00** | **119.399,97** |
| **Amortizazio metatua** | | | | | |
| Tresneria | (0,74) | (2,09) | | | (2,83) |
| Bestelako instalazioak | (2.801,48) | (1.991,02) | | | (4.792,50) |
| Altzariak | (1.644,16) | (1.118,99) | | | (2.763,15) |
| Ekipamendu informatikoak | (35.356,03) | (20.377,55) | | | (55.733,58) |
| Bestelako ibilgetu materiala | (959,05) | (532,61) | | | (1.491,66) |
| **Guztira amort. metatua** | **(40.761,46)** | **(24.022,26)** | **0,00** | **0,00** | **(64.783,72)** |
| **Garbia** | **60.803,52** | **(6.187,27)** | **0,00** | **0,00** | **54.616,25** |

2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian, ibilgetu ukiezina epigrafeko kontuetan izan den mugimendua honako taula honetan laburbildu da:

| | Saldoa 2020/12/31 | Gehitz. | Ateratz. | Intsuld. | Saldoa 2021/12/31 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Kostua** | | | | | |
| Aplikazio informatikoak | 22.542,32 | 19.145,74 | | | 41.688,06 |
| Bestelako ibilgetu ukiezina | 11.132,00 | | | | 11.132,00 |
| **Kostua guztira** | **33.674,32** | **19.145,74** | **0,00** | **0,00** | **52.820,06** |
| **Amortizazio metatua** | | | | | |
| Aplikazio informatikoak | (9.399,46) | (7.331,17) | | | (16.730,63) |
| Bestelako ibilgetu ukiezina | (4.441,39) | (2.226,40) | | | (6.667,79) |
| **Guztira amort. metatua** | **(13.840,85)** | **(9.557,57)** | **0,00** | **0,00** | **(23.398,42)** |
| **Garbia** | **19.833,47** | **9.588,17** | **0,00** | **0,00** | **29.421,64** |

2022ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian, ibilgetu ukiezina epigrafeko kontuetan izan den mugimendua honako taula honetan laburbildu da:

| | Saldoa 2021/12/31 | Gehitz. | Ateratz. | Intsuld. | Saldoa 2022/12/31 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Kostua** | | | | | |
| Aplikazio informatikoak | 41.688,06 | 5.687,00 | | | 47.375,06 |
| Bestelako ibilgetu ukiezina | 11.132,00 | | | | 11.132,00 |
| **Kostua guztira** | **52.820,06** | **5.687,00** | **0,00** | **0,00** | **58.507,06** |
| **Amortizazio metatua** | | | | | |
| Aplikazio informatikoak | (16.730,63) | (9.971,69) | | | (26.702,32) |
| Bestelako ibilgetu ukiezina | (6.667,79) | (2.226,40) | | | (8.894,19) |
| **Guztira amort. metatua** | **(23.398,42)** | **(12.198,09)** | **0,00** | **0,00** | **(35.596,51)** |
| **Garbia** | **29.421,64** | **(6.511,09)** | **0,00** | **0,00** | **22.910,55** |

Oraingo ekitaldian edo geroko ekitaldietan gorabehera esanguratsurik eragin duen zirkulstantziarik ez da gertatu, baldin eta hondar-balioei, bizitza ultilei edo amortizazio-metodoei eragiten badiete.

Fundazioak ez du ibilgetu ukiezineko ondasunen balorazio-zuzenketarik egin.
Ondasun higiezinetako inbertsioen epigrafean ez dago erregistratutako ondasunik.



Lehendakaria:
Jose Ignacio Asensio Bazterra jauna
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Foru-diputatua

## 6. oharra.- Finantza-aktiboak

Honako hau da Fundazioaren balantzearen aktiboari dagozkion finantza-tresnei buruzko informazioa:

Epe luzeko inbertsio finantzarioak

| Deskribapena | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| Bulegoko alokairu-fidantza | 23.776,80 | 23.776,80 |
| **Guztira** | **23.776,80** | **23.776,80** |

Fundazioaren bulegoko alokairu fidantza da.

Epe laburrera kobratu beharreko kontuak:

| Deskribapena | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| Bezero | | |
| Ogasun Publikoa, dirulaguntzengatik zordun | 186.407,29 | 0,04 |
| Ertainetarako Europako Agentzi Exekutiboa-Urban Klima | 165.302,94 | 216.680,00 |
| **Guztira** | **351.710,23** | **216.680,04** |

Ikusi 9. oharra.

## 7. oharra.-Finantza-pasiboak

Honako hau da Fundazioaren epe luzeko balantzearen finantza-pasiboei buruzko informazioa:

| Deskribapena | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| Kostu amortizatuko pasibo finantzarioak | 184.323,32 | 234.950,38 |
| **Guztira** | **184.323,32** | **234.950,38** |

Saldoa 1.308 euroko (558 euro aurreko ekitaldian) fidantzari dagokio lanak esleitzeagatik, eta Europako Batzordeak, zehazki Enpresa Txiki eta Ertainetarako Europako Agentzia Exekutiboak, emandako diru-laguntza bati dagokion diru-laguntzako zor hertsagarri bati, 270.850 euroko hasierako zenbatekoan. Diru-laguntza hori 2019tik 2025era bitarteko ekitaldietarako eman zen. 2022ko abenduaren 31n, kontu honetan 183.015,32 euroko saldoa (234.392,38 euro aurreko ekitaldian) diru-laguntza bihur daitezkeen zorratzat hartzen da, diru-laguntzaren xede den gastua justifikatu arte.



Lehendakaria:
Jose Ignacio Asensio Bazterra jauna
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Foru-diputatua

Honako hau da Fundazioaren epe laburrerako balantzearen finantza-pasiboei buruzko informazioa:

| **Deskribapena** | **2022** | **2021** |
|---|---|---|
| Epe motzerako beste pasibo batzuk | 1.106,05 | 13.612,50 |
| Hainbat hartzekodun | 174.193,47 | 79.825,80 |
| Pertsonala | | (141,31) |
| **Guztira** | **175.299,52** | **93.296,99** |

Epigrafe honetan inbertsio-ondasunengatik eta emandako zerbitzuengatik hartzekodunei ordaintzeko dauden saldoak erregistratzen dira.

Ogasun Publikoarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko saldo hartzekodunak 9. oharrean adierazten dira.

## 8. oharra.- Funts propioak

Honako hau izan da funts propioen kontuetako mugimendua 2022 ekitaldian zehar:

| | **Saldoa 2021-12-31n** | **Igoerak** | **Murrizketak** | **Saldoa 2022-12-31n** |
|---|---|---|---|---|
| Gizarte-funtsa | 30.000,00 | | | 30.000,00 |
| Aurreko ekitaldietako soberakina | (15.560,15) | | (481,89) | (15.078,26) |
| Ekitaldiko soberakina | 481,89 | 216.477,06 | 481,89 | 216.477,06 |
| **Guztira** | **14.921,74** | **216.477,06** | **0,00** | **231.398,80** |

Honako hau izan da funts propioen kontuetako mugimendua 2021 ekitaldian zehar:

| | **Saldoa 2020-12-31n** | **Igoerak** | **Murrizketak** | **Saldoa 2021-12-31n** |
|---|---|---|---|---|
| Gizarte-funtsa | 30.000,00 | | | 30.000,00 |
| Aurreko ekitaldietako soberakina | 0,00 | (15.560,15) | | (15.560,15) |
| Ekitaldiko soberakina | (15.560,15) | 481,89 | 15.560,15 | 481,89 |
| **Guztira** | **14.439,85** | **(15.078,26)** | **15.560,15** | **14.921,74** |

Fundazioaren zuzkidura

2022ko abenduaren 31n, Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioaren zuzkidura Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpenek osatzen dute soilik (fundatzaile bakarra).



Lehendakaria:
Jose Ignacio Asensio Bazterra jauna
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Foru-diputatua

## 9. oharra.- Zerga-egoera

Fundazioaren IFKa hau da: G-75203687. Fundazioa bat dator irabazteko xederik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauarekin (ikusi 4.4 oharra).

Administrazio Publikoekiko saldo korronteak

| | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| **Zordunen saldoak** | | |
| Ogasun publiko zorduna (diru-laguntzak) | 186.407,29 | |
| Europar Batasuna-Urban Klima, dirulaguntzengatik zordun | 165.302,94 | 216.680,04 |
| **Guztira** | **351.710,23** | **216.680,04** |
| **Hartzekodunen saldoak** | | |
| Ogasun publiko hartzekoduna (BEZ) | 0,00 | 352,75 |
| Ogasun publiko hartzekoduna (PFEZ) | 20.377,81 | 17.449,26 |
| Gizarte Segurantza hartzekoduna | 5.895,07 | 6.832,28 |
| **Guztira** | **26.272,88** | **24.634,29** |

Urban Klima 2050 proiektua LIFE programa finantzatzen du, Euskadin migrazioren eta/edo klima-aldaketa egokitzearen arloan 40 ekintza hedatzeko 6 urtez, eta2025eko abenduaren 31n amaituko da.

Fundazioak 3 ekintzatan parte hartzen du: herritarren hezkuntza, klima-aldaketaren hub eta gobernantza-ereduak, Ekintza horietan 25/12/31ra arte parte hartzen dute, eta diru-laguntzak (%60) langile-gastuak, kontratazioak eta zeharkako gastuak estaltzen ditu.
2022 ekitaldian 51.377,06 euro kobratu dira aurrerakin gisa (27.085,00 euro aurreko urtean). Gainerakoa, laguntza emateko akordioan onartu eta aurrekontuan sartutako gastua justifikatu ahala kobratuko da.

Memoria hau aurkeztu den datan oraindik zabalik daude azken hiru ekitaldiak, zerga-agintariek ikuskatu beharrekoak.

Ezin dira objetiboki zehaztu zerga-agintariek Fundazioarentzat ikuskatzeko modukoak diren ekitaldi guztiak berraztertzearen ondorioz etorkizunean izan litezkeen pasiboak ez luke eragin esanguratsurik izango erantsitako finantzen egoera-orrietan, eta, horrenbestez, ez da inongo hornidurarik erregistratu pasibo eta kontingentzia horiei aurre egiteko.



Lehendakaria:
Jose Ignacio Asensio Bazterra jauna
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Foru-diputatua

## 10. oharra.- Sarrerak eta gastuak

A) Diru-sarrerak

Erakundearen diru-sarrerak jarduera propioagatik

Honako hau da erakundeak jarduera propioagatik eskuratu dituen ditu-sarrerei buruzko informazioa:

| **Kontzeptua** | **2022** | **2021** |
|---|---|---|
| Emaitzari egotzitako diru-laguntza, donazio eta legatuak | 1.212.580,69 | 706.639,00 |
| **Guztira** | **1.212.580,69** | **706.639,00** |

Honako hau da erakunde emakidadunari egotzitako diru-laguntzei, donazioei eta legatuei buruzko informazioa:

| **Erakunde emakidaduna** | **2022** | **2021** |
|---|---|---|
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 1.057.022,00 | 679.554,00 |
| Eusko Jaurlaritza | 5.000,00 | |
| Europako Funtsa | 51.377,06 | 27.085,00 |
| Karbono funtsa | 99.181,63 | |
| **Guztira** | **1.212.580,69** | **706.639,00** |

Ikusi 11. oharra.

B) Gastuak

Moneta-Laguntzak

| | **2022** | **2021** |
|---|---|---|
| Sariak | 45.000,00 | 45.000,00 |
| **Guztira** | **45.000,00** | **45.000,00** |



Lehendakaria:
Jose Ignacio Asensio Bazterra jauna
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Foru-diputatua

Jardueraren bestelako gastuak

| **Deskribapena** | **2022** | **2021** |
|---|---|---|
| Alokairuak | 43.126,20 | 44.786,02 |
| Konponketak eta kontserbazioa | | 128,49 |
| Profesional independenteen zerbitzuak | 81.574,34 | 0,00 |
| Garraioak | | 238,99 |
| Aseguru-prima | 1.027,43 | 982,40 |
| Banku eta antzeko zerbitzuak | 459,42 | 15,00 |
| Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak | 178.248,87 | 9.517,66 |
| Hornikuntzak | 2.160,80 | 2.699,99 |
| Bestelako zerbitzuak | 352.675,84 | 259.738,17 |
| Beste zerga batzuk | 484,88 | 484,88 |
| **Guztira** | **659.757,78** | **318.591,60** |

Langileen gastuak

| **Deskribapena** | **2022** | **2021** |
|---|---|---|
| Soldatak eta ordainsariak | 273.399,15 | 257.694,64 |
| Gizarte Segurantza enpresaren kargura | 74.958,59 | 68.170,09 |
| Beste gastu sozial batzuk | 2.431,92 | 6.292,48 |
| **Guztira** | **350.789,66** | **332.157,21** |

Amortizazioak

| **Deskribapena** | **2022** | **2021** |
|---|---|---|
| Ibilgetu ukiezinaren amortizazioa | 9.929,34 | 8.264,69 |
| Ibilgetu materialaren amortizazioa | 26.291,01 | 19.946,54 |
| **Guztira** | **36.220,35** | **28.211,23** |



Lehendakaria:
Jose Ignacio Asensio Bazterra jauna
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Foru-diputatua

## 11. oharra.- Diru-laguntzak, donazioak eta legatuak

2022ko abenduaren 31ko egoera-balantze laburtuaren epigrafe honetako saldoak itzuli ezin diren diru-laguntzei, donazioei eta legatuei lotutako eta amortizatu gabeko zenbatekoa islatzen du. Honako hau da horiekin lotutako informazioa:

| | Saldoa 2021-12-31n | Diru-laguntza berriak | Intsuldaketa emaitzetara | Saldoa 2022-12-31n |
|---|---|---|---|---|
| Kap. diru-laguntza | 109.531,13 | 25.000,00 | (94.983,47) | 39.547,66 |
| Ustiapen diru-laguntza aktib. | (685,69) | | (685,69) | (1.371,38) |
| **Guztira** | **108.845,44** | **25.000,00** | **(95.669,16)** | **38.176,28** |

Aurreko ekitaldian izandako mugimendua honako hau izan da:

| | Saldoa 2020-12-31n | Diru-laguntza berriak | Intsuldaketa emaitzetara | Saldoa 2021-12-31n |
|---|---|---|---|---|
| Kap. diru-laguntza | 83.308,27 | 43.150,00 | (16.927,14) | 109.531,13 |
| Ustiapen diru-laguntza aktib. | 0,00 | | (685,69) | (685,69) |
| **Guztira** | **83.308,27** | **43.150,00** | **(17.612,83)** | **108.845,44** |

2022ko ekitaldian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzak erregistratu dira, ekitaldiko gastu arruntak estaltzeko: 1.057.022 euro (679.554 euro aurreko ekitaldian) eta 25.000 euro ibilgetu ukiezin eta materialeko inbertsioetarako. Kopuru hori kobratzeke dago 2022ko abenduaren 31n. (43.150 euro aurreko ekitaldian).

2022ko ekitaldian, Europako Funtsaren 51.377,06 euroko diru-laguntzak erregistratu dira ekitaldiko gastu arruntak estaltzeko (27.085 euro aurreko ekitaldian).

Jasotako diru-laguntzen eta ustiapen-transferentzien zenbatekoa 1.212.580,69 eurokoa da (706.639 euro aurreko ekitaldian). Horren xehetasuna memoria honetako 10. oharrean aipatzen da.

Ekitaldian emaitzetara egotzitako zenbatekoa 95.669,16 euro dira (17.612,83 euro aurreko urtean).

**12.Oharra.- Entitateren helburua soziala. Ondare-elementuak helburu propioetara aplikatzea. Administrazio-gastuak.**

*a) Erakundearen jarduera*

2022an egindako jarduerak honakoak dira:

Puntu bakoitzean, jarduketaren gauzatze-maila, egoera era izandako aldaketak zehazten dira, baita aldaketa horian justifikazioa era:

1. 2022-2024 urteetarako ekintza-planak garatzea, fundazioaren eguneroko kudeaketetarako orientazioa eta zentzua emango dituen plan estrategikoaren arabera.

Urteko ekintza guztiak 2020-2022 plan estrategikoaren esparrukoak izan dira, eta aurretik onetsitako ekintza-planekin bat etorriz gauzatu dira. 2020-2022 Plan Estrategikoa betetzeari buruzko txosten bat prestatu da, 2022ko ekainaren 23ko Patronatu arruntean aurkeztu dena.

Txostenaren emaitzak gogobetekotzat jo dira, Plan Estrategikoaren % 95 betez, eta Fundazioaren arloen arabera banakatuta. Aipatu da betetze-maila altua dela, baita gehitu diren jarduera berriekin ere, % 100 bete ez arren gaur egungo baliabide ekonomikoen falta dela-eta.

2. Plan Estrategikoa egitea eta onestea 4 urterako proiekzioekin (2023-2026 aldia), aurreko Plan Estrategikoaren (2020-2022) ikaskuntzetan oinarritutako helburuak eta ekintza-lerroak planteatuz eta egungo errealitatera eta fundazioaren etorkizuneko proiekziora egokitzeko kontuan hartu beharreko alderdi estrategiko guztiak txertatuz.

2023-2026 Plan Estrategiko berriak, 2022an lizitatu eta landu denak, egungo eta etorkizuneko alderdi estrategiko berriak jasotzen ditu.

3. Fundazioaren Komunikazio Plana zabaltzea, Naturklima Gipuzkoako klima-aldaketan erreferente gisa eta Ekonomia Berdearen (Ekonomia Zirkularra eta Trantsizio Energetikoa) motor gisa kokatzeko.

Fundazioaren komunikazioari dagokion guztia Ingurumeneko Departamentuarekin erabat koordinatuta gauzatu da, Naturklimaren urteko mugarri nagusi propioak (edo Naturklimak parte hartutako mugarriak) azpimarratuz:

- Klima-aldaketak Gipuzkoan duen kalteberatasunari eta inpaktuari buruzko urteko txostenaren aurkezpena (uztaila).



Lehendakaria:
Jose Ignacio Asensio Bazterra jauna
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Foru-diputatua

- Itsasertzeko Behatokiaren FOCUS txostenaren aurkezpena Uhinak Kongresuan (Klima Aldaketa eta Itsasertzari buruzko mugaz gaindiko V. Kongresua) (azaroa).

- Gipuzkoako ikastetxeentzako Klima-aldaketari eta GJHei buruzko sentsibilizaziorako eta prestakuntzarako "Generation Z & Climate Change" programaren esparruan egindako jarduerak zabaltzea.

- Gipuzkoa Basket saskibaloi-taldearekin sentsibilizazio-kanpaina hedatzea herritarrei eta ikasleei zuzendutako jasangarritasunaren eta klima-aldaketaren aurkako borrokaren arloan.

- Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtsaren aurkezpena. Aurkezpenak egin dira zenbait forotan: GK Recycling-en urteko jardunaldia (ekaina); Green Recovery Gipuzkoa (ekaina); Habic klusterraren jardunaldia (uztaila); Ekonomisten Euskal Elkargoaren ekonomia zirkularraren zikloaren I. saioa (urria); eta jardunaldia ADEGIko Hotelen Elkartearekin (abendua).

- Circular Recycling HUBen lan-ildo nagusiak zabaltzea eta nabarmentzea:

    - 2021ean zehar egindako "Ekonomia Zirkularraren eta Garapen Jasangarriaren Diagnostikoa GK Recycling enpresetan 2020"ren emaitzen aurkezpena. Horren aurkezpenak egin ziren Ingurumen Departamentuaren Ekonomia Zirkularraren Nazioarteko Topaketaren V. edizioan (otsaila), GK Recycling klusterraren urteko jardunaldian (ekaina) eta Bioterra Azokan (ekaina).

    - 2022an GK Recycling-eko enpresen erronken ebaluazio kualitatiborako egindako azterketaren emaitzen aurkezpena eta Naturklimaren zerbitzuei buruzko balorazioa. Emaitzak GK Recycling klusterraren (ekaina) urteko jardunaldian aurkeztu ziren.

    - 'Dendatu'ren aurkezpena –Gipuzkoako dendetan Ekonomia Zirkularraren eta GJHen autodiagnostikoa egiteko tresna–, Naturklimaren webgunean eskuragarri dagoena eta Ingurumen Departamentuarekin eta San Sebastián Shops-ekin lankidetzan garatua.

    - "Enpresen erronkak klima-aldaketaren aurkako borrokan, ekonomia zirkularra sustatuz" II. programaren itxiera. Enpresei zuzendutako ekitaldi publiko bat egin da urrian, Naturklimako bulegoetan; Naturklimaren HUBean 2021ean bizkortutako ekonomia zirkularreko hiru enpresek bizkortze-prozesuan egindako aurrerapenak eta egungo egoera azaldu zituzten. Horrez gain, ekitaldiak balio izan zuen 2022an bizkortze-prozesua hasi duten hiru enpresa berriek beren proiektua eta etorkizuneko igurikimenak aurkezteko.

    - "Enpresen erronkak klima-aldaketaren aurkako borrokan, ekonomia zirkularra sustatuz" III. programa abiaraztea (maiatza).

- Parte-hartzea Ekonomisten Euskal Elkargoaren Ekonomia Zirkularraren II Zikloan (GFAko Ingurumeneko Departamentuarekin lankidetzan), Naturklima ekonomia berdearen Gipuzkoako erreferente gisa kokatzeko. Lau saio dira, bi astean behin banatuta 2022ko urritik abendura bitartean; Naturklimak moderatzaile gisa parte hartu du saio guztietan, eta horietako bitan hizlari gisa: batean, Borondatezko Karbono Funtsa aurkezten, eta, bestean, Gipuzkoako enpresentzako klima-arriskuak aurkezten.
- Beste batzuk: Aupa Zuek + Fuck Up Nights jardunaldia, ADEGIko Ekintzaileen Foroarekin eta "En clave de Sol" enpresarekin lankidetzan, ekonomia zirkularrean ekintzaileak diren hiru kasu nabarmentzeko; Future of Fashion jardunaldia Naturkliman (ekaina); "The Break Fellowship" jardunaldia.
- Naturkliman (urria eta azaroa); GK Recycling hileko buletina; eta Recycling TOP eta Climathon Eibar jardunaldiak.

4. Gipuzkoako klima-aldaketaren behatokiaren jarduerak garatzea:

a. Gipuzkoako $CO_2$ Funtsa abian jartzea. Tresna berritzailea da, klima-aldaketaren efektuetara egokitzeko jarduketak, proiektuak eta obrak Gipuzkoan sustatzeko, baita berotegi-efektuko gasak murrizteko jarduketa gehigarriak eta karbono-hustulekuak handitzeko Gipuzkoako Azpiegitura Berdeen Ekintza Planean jasotako jarduketak ere. Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren koordinaziopean garatuko dira ekintzak, funtsaren azken helmugako gardentasunik handiena bermatzeko eta horiek Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategiari (Gipuzkoa Klima 2050) egiten dioten ekarpena bermatzeko. Tresnak erraztuko du Funtsari ekarpenak egiten dizkioten erakundeek zerga-pizgarriak lortzea, Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan aurreikusitakoari jarraikiz.

Programa maiatzean jarri zen martxan: barne-prozeduraren alderdi administratiboak diseinatu ziren; adierazleak eta irudi-alderdiak definitu ziren, eta webgunean eta erakundeentzako informazio-gidan inplementatu; eta balizko konpentsazio-proiektu potentzialei buruzko elkarrizketa abiatu zen Ingurumen Zuzendaritzarekin.

Programa zabaltzeko lan egin da, enpresak erakartzeko asmoz (komunikazio-plana zabaltzeari buruzko atalean azaldua). Aldi berean, Karbono Funtsaren Plan estrategiko bat garatu da datozen urteetan funtsaren kudeaketa operatiboa eta merkataritza-kaptazioa egiteko; halaber, funtsa Gipuzkoako enpresa-sektorean sustatzeko, nazioarteko emakume ekintzaileen ekarpen interesgarriak ere lortu dira, Naturklimak lankidetzan jardun duen Europako "The Break Fellowship" proiektuaren esparruan.

2022an Borondatezko Karbono Funtsaren bidez isuriak borondatez konpentsatu dituzten enpresa guztiei egingo zaien aitorpen-ekitaldia diseinatzen hasi da (2023ko urtarrilean izango da).

Konpentsazio-proiektu bat gauzatu da, eta bigarren baten diseinu-fasea hasi da.

Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en (GKAABE) 1., 3., 4. eta 5. jomugak.

b. Arintzearen eta egokitzearen arloetan ezarritako adierazleen koadroaren analisia, datuak aztertzea eta interpretatzea.

2022ko helburuei dagokienez erabat gauzatu da, adierazleen koadroa etengabe irekita baitago aldaketa eta berrikuspenetarako, datu zientifiko-tekniko berrien argitalpenean oinarrituta. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en (GKAABE) 7.2.3 Ekintzarekin bat.

Datuen eta adierazleen analisiaren ondorioz, 2022ko abuztuan "Focus: Tenperatura udan" txostena argitaratu da. Mota horretako lehen dokumentua da –FOCUS izendapenean bildutakoak–: oso gai zehatz bati buruz eta herritar guztiei zuzenduta egindako lana zabaltzea dute helburu.

c. Gipuzkoako klima-aldaketaren gaineko inpaktuari eta kalteberatasunari buruzko urteko hirugarren txostena egitea.

2022ko uztailean argitaratu eta UPV/EHUko Carlos Santamaría Zentroan aurkeztu zen jendearen aurrean, lurraldeko azpiegitura kritikoen azterketan eta klima-aldaketak haietan duen eraginean zentratuta. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en

(GKAABE) 7.2.4 Ekintzarekin bat.

d. Gipuzkoako BEG isurien inbentarioari buruzko urteko txostena egitea.

Laugarren txostena 2022ko urrian egin da. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en (GKAABE) 7.3.2 ekintzarekin bat.

e. Kostaldeko itsasertzeko Behatokiaren ekintzak, 2022. urteari dagozkionak:

i. Klima-aldaketaren adierazleen behaketa eta jarraipena.

ii. Agertokiak, inpaktuak eta KAri egokitzea. Inpaktuak, kalteberatasuna eta egokitzea.

iii. Inpaktuari, kalteberatasunari eta egokitzapenari buruzko txostenak egitea, honako hauetan oinarrituta: itsas mailaren igoeraren ondoriozko uholde-arriskuak, muturreko olatuen ondoriozko inpaktuak kostaldean, hondartzak eta hareatzak atzeratzea, itsasertzeko habitaten galera eta erresilientzia, itsas ekosistema berrantolatzea, itsas baliabideen galera

eta aukerak, arrisku sozioekonomikoak arrantzaren, turismoaren, portuen eta osasunaren sektoreetan.

2022ko urrian, Itsasertzeko Behatokiak FOCUS epigrafearen azpian argitaratutako lehen txosten indibiduala egin da. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en (GKAABE) 3., 4. eta 5. ekintzekin bat. Jarduera hori egiteko kontratu bat egin zen AZTI Fundazioarekin, Euskadiko eragile adituarekin eta bakarrarekin. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en (GKAABE) 7.2.3 Ekintzarekin bat.

Komunikazio-plana zabaltzeari buruzko atalean adierazi den bezala, FOCUS txosten horren emaitzak 2022ko azaroan egindako Uhinak Kongresuan (Klima Aldaketa eta Itsasertzari buruzko mugaz gaindiko V. Kongresuan) aurkeztu dira.

f. EIT CLIMATE KICren *Pioneers Into Practice* programaren anfitrioia: aurreko urteetako esperientzia positiboaren ondoren, Behatokiaren jardueran laguntzeko aditu bat hartzeko hautagaitza berriro aurkeztea.

Programaren 2022ko edizioan, aitzindari bat hartzeko proposamena aurkeztu zen, eta Naturklimaren eskaintza sustatzeko kanpaina egin zen. Ez da lortu aitzindari bakar bat ere erakartzea, kasu honetan anfitrioi gehiago baitzeuden interesdun aitzindari baino. EIT Climate KICek laguntza handia eskaini zuen, oso helburu erakargarritzat jotzen baitzuten. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en (GKAABE) 8.2.1 Ekintzarekin bat.

g. Klima Aldaketaren arloan erreferentziazko ekitaldi bat antolatzea Gipuzkoan inpaktuaren eta kalteberatasunaren txostenaren aurrerapenekin eta ondorioekin bat etorriz.

UPV/EHUko Carlos Santamaría Zentroan txostena aurkezteko ekitaldia bera izan da erreferentziako ekitaldia.

Txostena zabaltzeko bestelako ekitaldiak ere egin dira: Espainiako Epidemiologia Elkartearen XVII. urteko biltzarra, "XXI. mendeko erronkak: klima-aldaketa, hiri-egokitzapena eta osasuna"ren inguruko mahai-inguru batekin (abuztua); eta hitzaldi teoriko bat Ekonomisten Euskal Elkargoaren Ekonomia Zirkularraren Zikloaren hirugarren saioan (azaroa).

h. Klima Aldaketaren Behatokiaren Control Room-erako hardware eta software espezializatua eskuratzea.

Behatokiak iturri desberdinei (adib., AEMET, Estatuko Portuak, EUSKALMET) dagozkien datuak biltzeko duen zeregina errazteko, lantalde teknikoak ondoren prozesatzeko garrantzitsuak diren datu gordinen bilketa automatizatzeko 2021ean diseinatutako eta garatutako aplikazio

informatikoaren mantentzea egin da 2022an. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en (GKAABE) 7.3.2 Ekintzarekin bat.

5. <u>Circular Recycling HUBeko jardueren garapena.</u>

a. End of Cycle Circular Hub abian jartzea: bizitza-itxiera edo material eta produktu emergente berriekin lotutako ekonomia zirkularraren aplikazioa, hala nola motorrak, bateriak eta lur arraroekin eta metal arraroekin lotutako edozein proiektu.

**CIDETECekin lankidetza-hitzarmena sinatu da**, Gipuzkoan baterien birziklatzearen inguruko jarduera ekonomikoa sortzeko estrategia bat garatzeko, bi lan-ildo nagusi barne:

- Baterien birziklatzerako balio-kate bat sortzeko agenda estrategikoaren definizioa:
  Tokiko eragileen eta gaitasunen egungo mapa; inplikatutako industria-, teknologia-, erakunde- eta gizarte-eragileen komunitate bat sortzeko beharrezkoak diren elementuen definizioa; Europako testuinguruko zuzentarauen eta esperientzien azterketa; baterien birziklatzerako balio-kateko negozio-aukeren definizioa; I+G arloko aukera-areen identifikazioa; azpiegituren mailako inbertsio-beharren definizioa; eta finantzaketa-aukeren identifikazioa.
- Estrategia martxan jartzeko laguntza: Hub-a martxan jartzea inplikatutako eragileekin; marka sektorialaren irudi bat sortzea; eta estrategia zabaltzea eta balioan jartzea.

b. Naturklimak enpresa-sektorearekin eta ekosistema ekintzailearekin duen lotura eta aliantzen sorrera indartzea.

- Enpresa-sektorearekiko lotura sendotzeko, Gipuzkoako 65 erakunde ingururekin harremanetan jarri eta haiekin bilerak eta bisitak egin dira (enpresak, ekintzaileak eta sektoreko ordezkariak, batez ere); besteak beste: Suds, Impact Hub SS, Azti, Jolas, Emaús, UPV Enpresa-ikasketak, Ekogras, Eko3R, Kafea, Asfaltia, Arantza Agirrezabalaga, Trienekens, Polymat, Bilibin, Bask, Ekomodo, Scrap Ad, Irrisarri, Newaste, Algaloop, Climate-KIC, Plastigaur, SQ Consulting, Oregur, Surfrider, UPV Materialak, TEK Zumarraga, GHK, ADEGI Ekintzaileen Foroa, Irizar, Habic klusterra, Polykey, Sinnple, Blue Point, Cimico, Gisma Taldea, Cometel Recycling, CEIT, MIK, Biurrarena, Siemens Gamesa, Garbera, Sutargi, Mera Medical Solutions, Skootik, Akting, CEI Taldea, Metal78, Recreakult, ADEGIko Hotelen Elkartea, Hub Gipuzkoa Turismoa, Mondragon Korporazioa, ASPEGI, Ternua Group, Lotura, Sodesa, Amarenak, Kendu, ZenitSolar, Gipuzkoako Bazkundea, Rezola Zementuak,

Mazedonia Elkartea, KNG Group, Cidetec, Balab Factory eta ekonomia zirkularreko proiektuak dituzten unibertsitateko ekintzaile batzuk.

- Halaber, indartu da enpresa-sektorearekiko lotura, Naturklimak Ekonomisten Euskal Elkargoko Ekonomia Zirkularraren Zikloan (Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Departamentuarekin lankidetzan antolatua) parte hartu baitu; alde batetik, lau saioen moderatzaile gisa (2022ko urritik abendura bitartean), eta, bestetik, eragile aktibo gisa, bi txosten aurkeztuz –Karbono Funtsari buruz eta klima-aldaketari buruz–, ikuspegi ekonomikotik. , jasangarritasuna sustatzeko eta bultzatzeko ekintzak eta Gipuzkoako hotel-sektorean klima-aldaketaren aurka borrokatzeko ekintzak antolatzeko.

- Ekintzailetza-ekosistemari dagokionez, Naturklimaren ikusgarritasuna eta posizionamendua nabarmen hobetu dira ADEGIko Ekintzaileen Foroarekin lankidetza-hitzarmen bat sinatzean, ekintzaileentzako jasangarritasunaren eta ekonomia zirkularraren arloko pizgarri- eta laguntza-programetan elkar osatzeko; enpresari berriek enpresak abian jartzeko faseetan behar dituzten laguntzen, prestakuntzaren eta mentorizazioen esparruan, hau da, beren proiektuak asmatzeko, eratzeko, abiarazteko eta finkatzeko/profesionalizatzeko faseetan. Hitzarmen horren esparruan, abenduan "Aupa Zuek + Fuck Up Nights" jardunaldia egin da, Gipuzkoako ekonomia zirkularrean ekintzaileak diren hiru kasu balioan jartzeko.

- Horri gehitu behar zaio Fundazioak Industria Ministerioak EOI Fundazioaren bidez garatutako Emakumeen Ekintzailetza Erakartzeko THE BREAK programaren antolaketan, dinamizazioan eta parte-hartze aktiboan izandako rol aktiboa, Europako finantzaketa-proiektu baten esparruan. Impact Hub Donostia-rekin lankidetzan, Naturklimak erronka bat planteatu dio emakume ekintzaileen talde horri, haiekin batera lan egin du planteatu beharreko konponbideetan, eta bisitak egin ditu taldearekin batera haientzat interesgarriak diren erakundeetara.

c. Gipuzkoako enpresa-sektorean dauden Ekonomia Zirkularraren ekimenak indartzen, hobetzen eta sendotzen laguntzea.

- 2021ean zehar GK Recycling-en egindako Ekonomia Zirkularraren eta GJHen diagnostikoaren emaitzen aurkezpena; eta enpresek horri buruz duten iritzia ezagutzea, aukerak aprobetxatzeko, indarguneak sustatzeko eta identifikatutako ahuleziak eta mehatxuak arintzeko.

- Ekonomia Zirkularraren eta GJHen autodiagnostikorako Circular Scan tresna garatzea Gipuzkoako ETE industrialetarako.

- GK Recycling-eko enpresen erronken ebaluazio kualitatiborako eta Naturklimaren zerbitzuei buruzko balorazioa egitea eta aurkeztea.

- Gipuzkoako dendetan Ekonomia Zirkularraren eta GJHen autodiagnostikorako 'Dendatu' tresna garatzea, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiarekin eta San Sebastián Shops-ekin lankidetzan, 2021ean hasitako proiektuaren jarraipen gisa.

- Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari laguntza ematea EHU/UPVko ekonomia- eta enpresa-ikasketetako Ekonomia Zirkularraren Ikasgelan Gradu-amaierako 3 lan koordinatzeko GK Recycling klusterra ez diren hiru enpresatako (Biurrarena, Campezo Taldea eta Garbera) praktikei lotuta, ikasleek GJHak enpresa horietan inplementatzeari buruzko azterketa bat egin dezaten.

- Etengabeko zaintza teknologikoa eta informazio estrategikoaren zabalkundea ekonomia zirkularrarekin lotutako jarduera duten enpresentzat: batez ere GK Recycling-en hileko buletinaren bidez, mailing puntualen bidez eta enpresekin egindako bileren bidez.

- GK Recycling klusterraren, bertako enpresa bazkideen eta ekonomia zirkularrarekin lotutako proiektuen ikusgaitasuna eta hedapena:

- Recycling TOP jardunaldiak Ingurumen Sailarekin lankidetzan; GK Recycling-eko hainbat enpresarekiko aldizkako topaketak dira, haien esperientzia eta jarduera partekatu eta elkar ezagut dezaten (lankidetzarako eta sinergiak sortzeko lehen urrats gisa). 3 Recycling TOP jardunaldi egin dira: Jolas (martxoa), Scrap Ad (maiatza) eta Rezola Zementuak (iraila).

- Hilero GK Recycling-eko enpresa bati buruzko erreportajea egitea, izandako jarduera ezagutzera emateko Naturklimaren blogean eta buletinean. 9 erreportaje egin dira guztira (Bilibin, SUDS, Jolas, Balab Factory, Sodesa, Seigarbost, Kafea, Polymat eta Algaloop).

- Ekonomia Zirkularraren pilotua. Europako URBAN KLIMA 2050 proiektuaren esparruan, klima-gobernantzarako 9.3 ekintzan, Naturklimak 6 hilabeteko pilotaje bat diseinatu eta koordinatu du Gipuzkoako 25 erakunderekin. Pilotua lurraldeko enpresen ekonomia zirkularraren egoerari eta klima-ikuspegiari buruzko hasierako diagnostiko jarraitua izan da. 3 lan-tailerren bidez (uztaila, urria eta azaroa), erakundeetan ekonomia zirkularra hedatzeko oztopoetan eta aukeretan sakondu da. Galde-sorta urtero bidaliko zaie, haien jardunarekin lotutako adierazlearen bilakaera ikusteko. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en (GKAABE) 6.3.1 ekintzarekin bat.

d. Lurraldeko enpresak babestea eta dinamizatzea Ekonomia zirkularreko negozio-aukerak identifikatzeko, bai eta esparru horretako berrikuntza-proiektuak asmatzeko eta garatzeko ere: networking guneak, hackathoiak, parte-hartze

bidezko prestakuntza, arrakasta-kasuen hedapena, negozio-aukera berriak, lantaldeak, 'joint-venture'ak, etab.

- Enpresei aholkularitza espezializatu jarraitua eskaini zaie klima-aldaketaren eta ekonomia zirkularraren proiektuen arloan, halakoak teknikoki egituratzeko eta gauzatzeko behar den finantzaketa publikoa eta/edo pribatua bilatzeko laguntzarekin.
- "Enpresen erronkak klima-aldaketaren aurkako borrokan, ekonomia zirkularra sustatuz" II. programako proiektu ekintzaileen laguntzaren eta bizkortzearen bigarren zatia egin da, eta urrian itxi zen ekitaldi baten bidez. Bertan, ekintzaileek Naturklimaren HUBen bizkortze-prozesuan izandako aurrerapenak azaldu zituzten.
- Lankidetzan parte hartu da Climathon Eibar 2022n (urria), ekintzailetzari eta klima-aldaketari buruzko urteroko erreferentzia-ekitaldian.

e. Ekonomia zirkularreko berrikuntza eta ekintzailetza sustatzeko "Enpresen erronkak klima-aldaketaren aurkako borrokan, ekonomia zirkularra sustatuz" programaren III. deialdia.

2022ko deialdian 16 hautagaitza aurkeztu ziren, eta Patronatuak 3 proiekturi urteko sariak ematea onetsi zuen ekainaren 23an:

- Shandra Martínez Caballero: "Recreacult: sorkuntza zirkular eta jasangarria".
- Bidasoa Metal 78: "PGMak berreskuratzea (Platinoa, Paladioa eta Rodioa) / Hiri-meatzaritza".
- SAMOVING: "Marketplace jasangarria eta zirkularra material birziklagarriak erosteko".

Proiektuak irailaren 1ean hasi ziren garatzen, eta 2023ko maiatzaren 31ra arte luzatuko dira.

f. Ekonomia zirkularraren arloko inplementazioan eta berrikuntzan ezagutza hedatzea, enpresarekin/industriarekin eta Gipuzkoako ekosistema ekintzailearekin lotutako prestakuntzekin edo prestakuntza-plataformekin.

- GK Recycling-eko enpresek ekonomia zirkularraren garapenari dagokionez dituzten indargune eta ahultasun nagusiak identifikatu eta diagnostikatu dira, enpresetan ekonomia zirkularra neurtzeko tresna inplementatuz eta enpresen erronkak baloratzeko eta identifikatzeko galde-sortaren bidez. Horri esker, arlo horri dagokionez klusterreko enpresek dituzten prestakuntza-behar nagusien ikuspegia lortu da.

- Ekintzaileentzako prestakuntzaren ikuspegitik, "Zirkular Mentoring" I. edizioa egin da: prestakuntza- eta mentorizazio-programa da, Gipuzkoako ekintzaile zirkularrei beren startup-ak garatzeko eta finkatzeko garaian tresnak ematea eta laguntzea helburu duena. Lehenengo edizio honetan, Gipuzkoako 7 startup zirkularrek parte hartu dute (lurraldeko 4 startup zirkularrek gehi ekintzailetza sustatzeko "Enpresen erronkak klima-aldaketaren aurkako borrokan, ekonomia zirkularra sustatuz" II. programaren 3 proiektu ekintzaileek). Mentorien zerbitzu oso honek hainbat gai jorratu ditu honelako alderdietan ospe handia duten profesionalen eskutik: negozio-eredu berriak, I+G+b, prototipatzea, finantzak, etab.

6. <u>Renewable Energy HUBen jarduerak garatzea: Fundazioaren plan estrategikoan eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren kudeaketa-gomendioetan oinarrituta, Enpresa eta Energiako lantaldeak dinamizatuz, GFA-IZNren energia-jasangarritasunaren estrategiari lagunduz, energia-trantsizioko proiektuak bultzatuz (industria- eta enpresa-mailan nahiz ekintzailetzan), eta ezagutza, informazioa, kontzientziazioa, parte-hartzea eta negozio-eredu berrien analisia sortuz.</u>

- Gipuzkoako ekoizpen-sektoreen deskarbonizazio lehiakorrerako proiektuaren jarraipen-bileretan parte hartzea, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak koordinatuta. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en (GKAABE) 1.6.1 ekintzarekin bat.
- Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak koordinatzen duen Jasangarritasun Energetikoaren Foru Batzordean parte hartzea. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en (GKAABE) 1. jomugarekin bat.

7. <u>Harremanak eta aliantza estrategikoak ezartzea eragile pribatuekin eta funtsezko erakunde laguntzaileekin toki-, erkidego-, estatu- eta nazioarte-mailan.</u>

Eskualdeko eta tokiko mailan etengabeko elkarrizketak izan dira KABeko eta ekonomia zirkularreko hainbat eragilerekin (enpresak eta klusterrak, unibertsitateak, zentro teknologikoak, fundazioak eta elkarteak, etab.). Nabarmentzekoak dira 2022an sinatutako 4

lankidetza-hitzarmenak:

1) ADEGIko Ekintzaileen Foroarekin, ekintzaileentzako jasangarritasunaren eta ekonomia zirkularraren arloko pizgarri- eta laguntza-programetan elkar osatzeko; enpresari berriek enpresak abian jartzeko faseetan behar dituzten laguntzen, prestakuntzaren eta mentorizazioen esparruan.

2) ADEGIko Hotelen Elkartearekin, jasangarritasuna sustatzeko eta bultzatzeko ekintzak eta Gipuzkoako hotel-sektorean klima-aldaketaren aurka borrokatzeko ekintzak antolatzeko.

3) CIDETECekin, baterien birziklatzearen inguruan jarduera ekonomikoa sortzeko "End of Cycle Circular Hub"en esparruan: bizitza-itxiera edo material eta produktu emergente berriekin lotutako ekonomia zirkularraren aplikazioa, hala nola motorrak, bateriak eta lur arraroekin eta metal arraroekin lotutako edozein proiektu.

4) Gipuzkoa Basket saskibaloi-klubarekin, hiritarren sentsibilizazioari eta prestakuntzari buruz eta sektore pribatuak ekintza zehatzak gauzatzean parte hartzeari buruz. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en (GKAABE) 9. jomugarekin bat.

Nazioartean, Frantziako Ekonomia Zirkularreko Institutuarekiko (INEC) aliantza estrategikoa mantendu da, Europako proiektu bateratuak garatzera bideratuta.

Horrez gain, lan-bilera bat egin da Hondurasko Garapen Jasangarrirako Klima Aldaketaren Behatoki Nazionalarekin (ONCC-DS), aipatutako behatokiak Naturklima ezagutzeko duen interesaren eta bere jardueraren ondorioz. Jarduera propioei buruzko informazioa eta orientazioa eman zaie, eta atea ireki zaie etorkizuneko lankidetzetarako. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en (GKAABE) 7.3.1 ekintzarekin bat.

8. <u>Toki, erkidego-, estatu- eta nazioarte-mailan KAren eta Ekonomia zirkularraren foro eta sareetan parte hartzea.</u>

- "Klima-aldaketaren inpaktua eta harekiko kalteberatasuna Gipuzkoan. Azpiegitura kritikoak" txostenaren aurkezpena.
- Uhinak Kongresuan (Klima Aldaketa eta Itsasertzari buruzko mugaz gaindiko V. Kongresuan) parte hartzea, Itsasertzeko Behatokiaren FOCUS txostena aurkeztuz.
- Espainiako Epidemiologia Elkartearen XVII. urteko biltzarrean parte hartzea, "XXI. mendeko erronkak: klima-aldaketa, hiri-egokitzapena eta osasuna"ren inguruko mahai-inguru batekin.
- Parte-hartzea 2021eko Ekonomia Zirkularrari buruzko Nazioarteko IV. Topaketan. Bertan, Fundazioaren ekonomia zirkularraren HUBaren aurkezpena egin zen.
- Ekonomisten Euskal Elkargoko Ekonomia Zirkularraren Zikloan parte hartzea (Ingurumeneko Departamentuarekin lankidetzan antolatua), moderatzaile gisa jardunez lau saioetan eta bi txosten tekniko aurkeztuz: "Karbono Funtsa klima-ekintzarako tresna gisa" eta "Klima-aldaketaren inpaktua erakundeetan".

- Parte-hartzea Climathon Eibar ekitaldian, ekintzailetzari eta klima-aldaketari buruzko urteroko erreferentzia-ekitaldian.
- Parte-hartzea "Green Recovery Gipuzkoa" Think Tank-ean eta "Gipuzkoa 2050: lurralde % 100 zirkularra" eta "Klimaren alde konprometitutako herritarrak" proiektuetan.
- Parte-hartzea ekaineko GK Recycling jardunaldian.
- Parte-hartzea Bioterra Azokan Fundazioaren ekonomia zirkularraren HUBaren ekintzak aurkezteko.
- Parte-hartzea Kutxa Fundazioaren Ekoliderrak programan.
- Jasangarritasun Energetikoaren Foru Batzordean parte hartzea.
- Asistentzia ENERGIA 2022 jardunaldietara (Ingurumena eta Obra Hidraulikoak Departamentua (urria).
- Parte-hartzea "Etorkizuna Eraikiz" Kongresuan (azaroa), Naturklimaren jarduera azalduz Gipuzkoako trantsizio berdeari eskainitako panelean.

Gainera, modu birtualean edo presentzialean parte hartu da klima-aldaketari, ekonomia zirkularrari eta energia-trantsizioari buruzko ekitaldi eta foro askotan. Besteak beste:

- EHUko udako ikastaroak:
- "Aldaketa sozioekonomikoa berehalakoan etorriko da, osasun bakarra dagoela ulertzen dugunean" (martxoa). Donostia Sustainability Forum.
- "Klima-aldaketa eta deskarbonizazioa: ekonomia jasangarriaren eredu berria" (ekaina).
- "Jasangarritasuna, ETEak eta finantzaketa" (ekaina).
